

Zentzuz jokatzea nahiko denean

Euskaldunon Egunkaria, 1991-03-15: 3.

Irakurri berria dut Katalunian gertatu den zerbait: Estatuaren oinarrizko legearen Auzitegiak erabaki du, Generalitateak bere funtzionarioei katalanaren ahozko eta idatzizko ezaguera beharrezko egitea ez dela legezkontrakoa.

Eta hau, Espainiako Gobernuak berak eskatutakoaren aurka.

Egia da erabaki hau hartzeko Auzitegi gorenak sei urte behar izan dituela, baina egia da, baita ere, garrantzitsua den sententzia hau Auzitegiak aho batez hartu duela.

Inbentoa zera izan dela, diote kataluniarrek: zentzuz jokatzea.

Esan bestela:

Alde batetik legeak aitortzen die Estatuan espaineratik at dauden hizkuntzak herrialde bakoitzean berea duenaren erabilera ofizial izateko eskubidea. Honek esan nahi du kataluniarrak, gailegoak eta euskaldunak legez badutela berezko duen hizkuntza erabiltzeko ahalmena, eta, beraz, Katalunian katalana, Galizian gailegoa eta Euskalerrian euskara irakasteko eta erabiltzeko eskubidea.

Oso justu eta legezko da hau, eta bazen garaia!

Demokraziaren etekin seinalatuenetako bat dugu.

Baina, beste gauza askotan gertatzen den bezala, hizkuntzari dagokion arloan ere, legearen eta honek baieztan duen ekintzaren arteko tartea ez da txikia. PSOEkoak dira zirrikitu honetan orain arte gehien nabarmendu direnak. Badirudi Legeak egiten diren neurrian bertan konpontzen direla arazoak. Honela gertatuko balitz, gure herriak duen mingarrienetako bat konpondua legoke: euskaldunak berehala jarriko ginatke euskaraz hitzegiten. Baina hizkuntzarena arazo sozial bat denez, beste bat jarriko nuke adierazbide bezala: alokairuen neurrizko igoeraren letra eta langileen asekada sindikatuen bitartetik gabe letorkeen modura. Nagusigoa, bai politikan eta baita lantegian ere, zekena da berez.

Aginteak usteltzen du askotan gizakia, zoritxarrez.

Hizkuntzarena arazo soziala denez, dekretu bidez konpontzen ez diren hauetakoa, legeak lege, eta ongi etorriak izan dira orain arte egindakoak, gero bere mintzairarako eta zabalkunderako, pertsonen arteko lan luzeak eskatzen ditu; ehun sozial bizian indarkeriaz egindako kalteak ezartzea errezagoa da horrekin sortutako hondamena gero konpontzea baino, batez ere konpontzeko bideak legez eta berez, inor mindu gabe, gizon artekoak aingeruki konpontzea nahi bada.

Herri baten hizkuntza zanpatzea errezagoa da mintzaira honen gizakatean egindako urraketak konpontzen baino. Esperientziak badituz, "sozialista" letreroarekin gizartean sortzen diren arazo espiritualak, ez-materialak, "sentimentalkeria" hutsak bezala tratatzen dituztela jakiteko. Horiek "mundu obrero", "masa", "materialismo historico", "la internacional" bezalako hitz lodiak besterik ez dute bere hiztegian gordetzen. Izan behar lukete, bada, kontuan, mundu sozialistaren porrotetik ikusten ari garena,

esperientzia horretatik ikasteko apaltasun apur bat; baina sozialistaren matrikula, batez ere espainola bada, ez da nolana hiko koraza.

XIX. gizaldian mailuz landutako intransigentzia zaharra.

Zentzu hutsez jokatzeari nahiko denean!